



Kaixo guraso,

Segurako Udala Oinheritik sustatzen ari diren herri hezitzaileen sarera batu da, herri hau hezkuntzatik eraikitzeko daukagun apustu sendoaren adierazle. Hezkuntzaren ardua konpartitua dela ulertzen dugunez, herria bera eremu hezitzaile gisa sakontzeko ibilbide bat hasi nahiko genuke zuekin.

Herriko gazteekin parte hartze prozesu bat martxan jarriko dugu, eurekin herriko errealitatearen inguruko lanketa bat egiteko. Era berean, gurasoekin eta herrian haur eta gaztekin lan egiten duten eragileekin lanketa paralelo bat egitea gustatuko litzaiguke, herri bezala, bide berri honetan denok elkarrekin abiatzeko .

Horretarako, Oinherriekin elkarlanean antolatu dugun formazio saio honetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu:

**Otsailaren 5ean, 17:00-19:30, Baratze Pilotalekuan**

Herri hezitzailearen filosofia zer den eta zein zazpi giltzarritan egituratzen den ezagutzeko aukera izango dugu. Zazpi giltzarri hauetako bitan sakonduko dugularik; haurtzaroaren kulturaren eta, haur eta nerabeen parte hartzean. Haur eta nerabeak ikusteko begirada aldatzea, eta parte hartzeaz ari garenean zer ulertzen dugun elkarrekin adostea izango direlarik saioaren helburu nagusiak.

Antolaketa lanak errazteko eta Covid-19aren neurri guztiak bete ahal izateko aurrez izena ematea beharrezkoa izango da. Horretarako aukera izango duzue emailaz, [kultura@segura.eus](mailto:kultura@segura.eus) en, web orrian edota watsapez bidaliko den galdetegian.

Aldez aurretik mila esker,

Seguran, 2021eko urtarrilaren 25ean

Izarra Urdalleeta Iraola

Alkatea



**SEGURAKO UDALA**



**elhuyar**